

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### GASTEIZKO ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

#### **Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea Eusko Legebiltzarreko 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetarako osatzea**

Egintza honen bidez Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratzten da, bat etorritz 2020ko uztailaren 12an egin beharreko Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak deitzen dituen maiatzaren 19ko 11/2020 Dekretuan xedatutakoarekin eta Eusko Legebiltzarreko Hauteskundearen ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 22.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Hona hemen hura osatuko duten batzordekideak:

– Francisco Javier Pablo Pablo, Gasteizko lehen auzialdiko 2. epaitegiko magistratu eta epailea.

– María Teresa Trinidad Santos, Gasteizko Lehen Auzialdiko 7 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– Sara Mallén Basterra, Gasteizko Adingabeen epaitegiko magistratu eta epailea.

Hauteskunde Batzordeko idazkari lanetan, María Teresa Quintanilla García, lehen auzialdiko 5. zenbakiko ZLUP zibileko justizia administrazioeko legelari, Gasteizko epaitegi dekanoko legelari lanetan.

Jarraian, aipatutako legearen 22.2 artikulua betez, batzordekideek batzordeburu hautatu dute, eta hautatua, aho batez, Francisco Javier Pablo Pablo, Gasteizko lehen auzialdiko 2. epaitegiko magistratu eta epailea, izan da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 22a

*Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeburua*  
**FRANCISCO JAVIER PABLO PABLO**